

## Senideak Urte-Berrian

*Euskaldunon Egunkaria*, 1995-12-31: 3.

Giza-familiaz aritzen gara animalia-aren gainetik eta Larruaren koloreaz, zibilizazioen eta hizkuntzen aniztasunaz at gizateriaren batasun solidarioaren beharra adierazi nahi dugunean. Denok dugula sakratua den bizia eman digun ama bat sorreran, aita ere, noski, eta seme-alabak eta bilobak osatzen duten odol bereko familia. Datu hau ahaztea barka ezina izateaz gain, bekatu politikoa ere izan daiteke. Arerioaren arinkeriaz, agian. Eta gorrotoz bada, oraindik gaiztoago, zeren eta arrenkura ez da inoiz ona, ez gerauen bihotzetan, baina ezta kontrarioenean ere, eta hau politikan eta gerran, bietan. Herritasunerako borrokaren baitan euskal presoak gordeta dauzkaten Estatuentzat, esate baterako. Hauek jakin behar lukete presoei senideak ikusteko traba gaiztoak jartzea ez dela, ez legezko eta ezta politikoki oneratsu ere, eta luzera indarrez altxako zaiela jazarraldi hau. Askatasun borrokan ari den talde abertzale denak ere hausnarketa beretsua egitea zilegi dirudi, eta gatazkako lantzetan gertatutakoari irtenbidea emateko garaia ona izan daitekeela Urte-Berriaren Albisteari argitasun apur bat ikusten hasteko.